

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Bezero berriak, laguntza pertsonalaren bidez erakarri genitzake. Gure enpresaren helburua, gure lentilla berriekin, gure bezeroak konbentzitzea da. Bezero bakoitzaren arazo edo egoera aztertuta, laguntzen saiatuko ginateke. Izan ere, gure ustez, enpresako langileek, bezeroekin harreman ona edukitzea funtsezkoa da. Garbi daukagu, Paulentilan, laguntza eske datozen pertsona guztiek edukiko dute beraien denbora gure langileekin hitz egiteko eta elkar komunikatzeko, gainera ez dugu uste zaila izango denik; izan ere, bezeroen arazoak antzekoak izan daitezke. Horrez gain, gure langileek, online bidez ere kontaktatuko dute bezeroekin, pertsona ugari egongo baitira (beti ere lan-ordutegi barruan) prest edozeini erantzuteko eta proposamenak egiteko.